**2011ko EPE: GAINDITU DUTENEN ZERRENDARI BURUZKO INFORMAZIOA:**

2011ko uztailaren 27ko EHAAn, Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpena argitaratu zen, hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak onartzen dituena.

2011ko EPE webean, 2012ko azaroaaren 22an, hurrengo kategorietako oposaketa-fasea gainditu dutenen zerrenden ebapenak argitaratu dira:

ADMINISTRARIA.

ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEA.

FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA.

ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARIA.

Azken ebazpen honetan azaltzen diren **gainditutakoek** 10 egun balioduneko epea izango dute, hau da, **2012ko azaroaren 23etik abenduaren 4ra,** dagozkien **betekizun eta merituak alegatzeko**, gaindituen zerrenda onartzen duen ebazpenean eta oinarri orokorretako 12.5 oinarrian ezarritakoaren arabera.

Era berean, **hauta-proben emaitzei buruzko informazio eguneratua** argitaratu da, kalifikazio-epaimahaiak interesatuek aurkeztutako erreklamazioak errebisatu ondoren: erantzun-txantiloi eguneratua eta emaitza eguneratuak.

**2011ko EPEko kontsulta pertsonalizatue**n bidez, gainditutakoek **Osakidetzak dituen datuak** ikusi ahal izango dituzte, ondokoei dagokienez: izan beharreko titulazioa, egindako zerbitzuak, prestakuntza, euskerako hizkuntza eskakizunak,…

**Betekizunak eta merituak alegatzeko prozesua** errazteko, hurrengo **informazio eta dokumentazioa** argitaratu da 2011ko EPEko oharren atalean:

- **Prozeduraren laburpen-koadroa,** betekizun eta meritu ezberdinak egiaztatzeko modua adierazten duena.

- Betekizunak eta merituak alegatu eta mekanizatzeko **jarraibideak.** Arreta berezia jarri behar zaio izan beharreko titulazio akademikoaren atala betetzeari.

- **Betekizunak eta merituak egiaztatzen dituen dokumentua,** gainditutako izangai guztiek bete, erregistratu eta epearen barruan entregatu beharko dutena.

  **Erreklamazio-eredua,** interesatuek Osakidetzak eskainitako datuen aldaketa eskatzeko, beraiekin ados ez egoteagatik. Beste Administrazio Publikoetako esperientziari dagokionez, egindako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria entregatu beharko da, edo notarioak egindako kopia kautoa.

  **Osakidetzan egindako zerbitzuak beste kategoria/lanpostu funtzional batera lotzeko dokumentua,** oinarri orokorretako 13.1.1 oinarrian aurreikusitako kasuetan.

  **Egindako zerbitzuak egiaztatzeko eredua,** beste Administrazio Publikoetan egindako zerbitzuak alegatzen diren kasuetan.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 15an.